



**ERRENERIAKO UDALEAN
HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLANA**

VI. Plangintzaldia (2018-2022)

**PLAN DE NORMALIZACIÓN DEL USO DE LAS LENGUAS OFICIALES EN
EL AYUNTAMIENTO DE ERRENERIA
VI. Periodo de Planificación (2018-2022)**



2018.12.18an onartua

ERRETERIAKO UDALA
Udal Hizkuntza Politika



AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA
Política Lingüística Municipal

ERRETERIAKO UDALA
Udal Hizkuntza Politika



AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA
Política Lingüística Municipal

*«Baina nik, hizkuntza larrekoa,
nahi haunat ere noranahikoa:
jakite hegoak igoa,
soina zahar, berri gogoa,
azal horizta, muin betirakoa»*

LIZARDI



AURKIBIDEA	Orr.	ÍNDICE
1. Sarrera	7	1. Introducción
2. Testuinguru juridikoa	9	2. Contexto jurídico
3. Eragin epea eta eta eragin eremua	12	3. Periodo de vigencia y ámbito de aplicación
4. Derrigorrez bete beharreko indizea	13	4. Índice de obligado cumplimiento
5. Metodologia. Planaren diseinua, jarraipena eta ebaluazioa	14	5. Metodología. Diseño, seguimiento y evaluación del Plan
6. Normalizazioan egindako bidearen ebaluazioa eta VI. Plangintzaldirako diagnosia. Udalaren argazki linguistikoa (DIAGNOSIAREN EMAITZA OROKORRAK)	16	6. Evaluación del proceso de normalización y diagnóstico para el VI. Periodo. Imagen lingüística del Ayuntamiento
A) BIKAIN: 2015eko ebaluazioaren emaitzak	16	A) BIKAIN: resultados de la evaluación de 2015
B) 2017an Erakundeak aurkeztutako ebaluazioa:	18	B) Evaluación presentada por el Ayuntamiento de 2017:
<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzu-hizkuntza • Lan-hizkuntza 		<ul style="list-style-type: none"> • Lengua de servicio • Lengua de trabajo
C) Datu kualitatiboak (langile eta politikoen iritzia) euskararen erabilerak Udalean duen bilakaerari buruz	22	C) Datos cualitativos (opinión del personal y los y las políticas) referentes a la evolución del uso en el Ayuntamiento
<ul style="list-style-type: none"> • Erabileraren bilakaera • Balorazio orokorra 		<ul style="list-style-type: none"> • Evolución del uso • Valoración general
D) Indarguneak eta zer hobetuak	26	D) Puntos fuertes y aspectos de mejora
7. Planaren xedea	28	7. Objeto del Plan
8. Plan estrategikoa	28	8. Plan estratégico
9. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak	39	9. Criterios de uso de las lenguas oficiales
1. <u>ARDATZA: ZERBITZU-HIZKUNTZA</u>	39	<u>EJE 1: LENGUA DE SERVICIO</u>
1. Erakundearen irudia	40	1. Imagen corporativa
1.1 Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak		1.1 Rotulación y audiovisuales
1.2 Marketina, publicitatea eta jendaurreko ekitaldiak		1.2 Marketing, publicidad y actos públicos



1.3 Ingurune digitala		1.3 Entorno digital	
2. Erabiltzaileekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harremanak	48	2. Relaciones con las personas usuarias (personas físicas) y la ciudadanía	
2.1 Erabiltzaileekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan		2.1 Relación escrita con las personas usuarias (personas físicas) y la ciudadanía a la hora de ofrecer servicios y productos	
2.2 Erabiltzaileekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan		2.2 Relación verbal con las personas usuarias (personas físicas) y la ciudadanía a la hora de ofrecer servicios y productos	
2. <u>ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA</u>	51	<u>EJE 2: LENGUA DE TRABAJO</u>	
3. Barne komunikazioa eta lan tresnak	51	3. Comunicación interna y herramientas de trabajo	
3.1 Lanari lotutako hizkuntza paisaia		3.1 Paisaje lingüístico ligado al trabajo	
3.2 Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala		3.2 Comunicación escrita vertical y horizontal	
3.3 Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala		3.3 Comunicación oral vertical y horizontal	
3.4 Baliabide informatikoak		3.4 Recursos informáticos	
4. Pertsonen kudeaketa	57	4. Gestión de personas	
4.1 Pertsonen kudeaketa		4.1 Gestión de personas	
4.2 Laneko prestakuntza		4.2 Formación laboral	
5. Kanpo harremanak	58	5. Relaciones externas	
5.1 Administrazioa		5.1 Administraciones	
5.2 Erakunde pribatuak (pertsona juridikoak) finantza-entitateak, produktu eta zerbitzu- hornitzaileak		5.2 Entidades privadas: entidades financieras, proveedores/as e productos y servicios, etc	
5.3 Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak eta abar		5.3 Otras relaciones: entidades aliadas, empresas del grupo, instituciones colaboradoras, etc	
6. Kudeaketa sistema	61	6. Sistema de gestión	
6.1 ESTRATEGIA: hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea	61	6.1 ESTRATEGIA: integración de la gestión de lenguas en el sistema de gestión general	
6.2 BEZEROAK edo HERRITARRAK	64	6.2. CLIENTELA O CIUDADANÍA y	



eta PRODUKTUA edo ZERBITZUA. Hizkuntzen kudeaketa bezeroekiko eta herritarrekiko harremanen kudeaketan eta produktuen edo zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea		PRODUCTO o SERVICIO. Integración de la gestión lingüística en la gestión de las relaciones con la ciudadanía y en el desarrollo de los servicios
6.3 PERTSONAK: hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea	69	6.3 PERSONAS: integrar la gestión de las lenguas en la gestión del personal
10. Administrazio atalen izaera: euskarazko atalak eta atal elebidunak	72	10. Unidades administrativas: áreas en euskera y unidades bilingües
10.1 Administrazio atalen izaera	72	10.1 Definición de las áreas municipales
10.2 Berariazko jarraibideak euskarazko atalenzat	73	10.2 Directrices específicas para las unidades administrativas de euskera
ERANSKINAK	75	ANEXOS
I Euskara nabarmentzeko bideak Errenteriako Udalaren hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko planaren eraginpeko komunikazioetan: ahozko komunikazioak, argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak eta gainerako euskarriak	76	I Medidas para destacar el euskera en las comunicaciones en el ámbito de aplicación del plan de euskera del Ayuntamiento de Errenteria: comunicaciones orales, publicaciones, anuncios, campañas publicitarias y demás soportes comunicativos
II Errotulazio finkoa, tresneria eta papertegia	79	II Rotulación permanente, aparatos, máquinas y papelería
III Lanpostuei hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-datak ezartzeko prozedura eta jarraibideak	80	III Procedimiento y criterios de asignación de perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad a los puestos de trabajo
IV Toponimoen erabilera	83	IV Uso de los topónimos
V Itzulpenak eskatzeko jarraibideak	85	V Criterios de traducción
VI Kontratazioak	90	VI Contrataciones



SARRERA

1

INTRODUCCIÓN

Errenterriak azkeneko urteotan aurrerapauso handiak eman ditu euskararen normalizazioan. Esate baterako, ikastetxe eta euskaltegiek egindako ahaleginaren ondorioz gero eta gehiago dira belaunaldi euskaldunak, kale erabilera handiagoa da eta euskarak gero eta presentzia handiagoa du herrian hainbat alorretan, hala nola, kirolean, aisian eta abarretan.

Ibilbide horretan Errenterriako Udalak langileak euskalduntzeko baliabide ugari jarri ditu eta bere funtzionamenduan euskararen erabilera sustatzeko ahaleginetan dabil azkeneko urteotan. Hori dela eta, barruko zein kanpoko lana eta herritar zein erakunde, enpresa eta beste erakunde publikoekin dituen harremanak euskaraz izan daitezten bultzatzen ahalegintzen da.

Une honetan Errenterriako Udaleko langileen %71k dute eskuratua betetzen duten lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna, baita derrigortasun-datarik gabeko lanpostuetan ere. Ordezkaritza politikoen artean ere gaitasuna altua da, inoizko korporaziorik euskaldunena dugu: zinegotzien %67 dira euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko gai.

Horiek horrela izanik ere, erabilera ez dator bat ezagutzarekin. Euskara zerbitzu-hizkuntza da herritarrekiko harremanetan eta Udal barruan ere gehiago erabiltzen da, baina askoz neurri txikiagoan da ohiko lan-hizkuntza edota gainerako erakunde, enpresa edo elkarteekiko harremanetarako hizkuntza (%10 inguru), eta gaztelania askoz zabaldago dago alor horietan.

Errenteria ha azkendu a grandes pasos en materia de normalización lingüística. Por ejemplo, gracias al esfuerzo realizado por los centros escolares y los euskaltegis, cada vez hay más generaciones de euskaldunes, el uso del euskera en la calle ha aumentado y es mayor su presencia en ámbitos como el deporte, el ocio etc

El Ayuntamiento de Errenteria no sólo ha habilitado los recursos necesarios para la euskaldunización de sus trabajadores y trabajadoras, sino que, estos últimos años, está realizando un gran esfuerzo para promover el uso del euskera en su funcionamiento habitual, fomentando el uso del euskera tanto en el trabajo interno como el externo, así como en sus relaciones con otras instituciones, empresas o entidades públicas.

En este momento, en el Ayuntamiento de Errenteria aproximadamente el 71% del personal ha acreditado el perfil lingüístico correspondiente a su puesto, incluso en puestos que no tienen fecha de preceptividad. También entre los y las representantes políticos la capacidad lingüística es mayor que nunca; de hecho, en esta legislatura el 67% de la corporación entiende o habla euskera.

Pero hay que decir que el conocimiento y el uso del euskera no se sitúan en el mismo nivel. Aunque durante los últimos años ha aumentado su uso tanto en la relación con la ciudadanía como dentro del Ayuntamiento, no es lengua habitual de trabajo o de relación con otras administraciones, empresas o asociaciones en la misma medida (10%) y el castellano está mucho más extendido en esos ámbitos.



VI. Plangintzaldi honetan udal langile eta ordezkari politikoen gaitasunaz baliatu nahi dugu, ezagutzatik erabilerarako jauzia egiteko, lanaren esparru guztietan erabilera eraginkor eta erreala izan dezagun.

Udalak hasiera-hasieratik euskararen erabilera normalizatu eta sustatzea izan du helburu nagusi, normaltasun osoz entzun, idatz eta erabil dadin, eta helburu hori lortzeko ezinbestekoa da Udalean lanean ari garen guztiok horretan saiatzea. Horregatik, langile zein ordezkari politikoen lan-jarduna euskaraz bideratzeko plana onartzea nahi dugu, euskaraz gogoz eta borondatez lan egin dezagun, hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzko araudiek ere horretara bultzatzen gaituztela ahaztu gabe.

Txosten honek VI. Plangintzaldian ezarritako helburuak betetzera bideratutako jarraibideak biltzen ditu.

Queremos valernos de la competencia lingüística del personal y representación política para realizar un salto cualitativo para pasar en este periodo de planificación del conocimiento al uso efectivo y real en todos los ámbitos de trabajo.

Desde el principio nuestro objetivo principal ha sido el de normalizar y fomentar el uso del euskera, es decir, que el euskera sea utilizado habitualmente y con total normalidad. Para ello, es imprescindible el esfuerzo de todas y todos los trabajadores municipales, con buena voluntad e ilusión, sin olvidar que debemos cumplir la normativa vigente sobre el uso de los idiomas oficiales.

Este documento recoge las directrices encaminadas a la consecución de los objetivos señalados para el VI. Periodo de Planificación.



2.1 ARAU OROKORRAK

- Azaroaren 24ko 10/1982ko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarriko Legeak herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri-aginteei hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu¹. Lege horrek markatu zuen gizartearen euskararen erabilera sustatzeko politiken abiapuntua.
- Euskal Autonomi Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea².
- Horri loturik, herri administrazioek hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko prozesua plangintzaldika kudeatzen dute, 86/1997 Dekretuak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu beharra ezarri zuten euskal herri-administrazioei³. Dekretuak gaur egun indarrean jarraitzen du.
- Apirilaren 6ko 2/2016 Toki Erakundeei buruzko Legeak 6 eta 7 artikuluetan xedatutakoari jarraiki, euskara tokiko erakundeen jardueretarako erabilera normal eta orokorreko zerbitzu- eta lan-hizkuntza izango da, betiere herritarrek

2.1 NORMATIVA GENERAL

- LA ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera establece el derecho de todos los ciudadanos y ciudadanas a relacionarse con la administración pública en la lengua oficial de su elección y las obligaciones que atañen a los poderes públicos para garantizar el ejercicio de tal derecho.
- La Ley 6/1989 de, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.
- En desarrollo de las citadas leyes, las administraciones públicas gestionan el proceso de normalización en planes quinquenales, en base al Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Dicho decreto continua en vigor.
- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. De acuerdo con los art. 6 y 7 de la citada Ley, el euskera será lengua de servicio y lengua de trabajo de uso normal y general en las actividades de las

¹ Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntza eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du, eta baita administrazioetako plantilletan bi hizkuntza ofizialak jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere. Ondorioz, herri aginteen betebeharra xedatzen du, herritarren eskubidea muga eta jtrabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.

² V. titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erreglamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik herri administrazioetako euskararen erabilerearen normalkuntza prozesuaren oinarri ere badira

³ 18. atalak jasotzen du 17. artikuluan ezarritako normalizazio helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politikaren nondik norakoak eta jarraibide nagusiak jasotzeko euskararen erabilera planak onartu behar direla



erakundeekin nahi duten hizkuntzan harremanak izateko duten eskubidea bermatuta⁴.

- Zehazki, 7.2 artikulua hau dio
“Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.”
- 2003ko abenduaren 22ko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legeak eta 2008ko uztailaren 1eko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuak ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die kontsumitzaile eta erabiltzaileei. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzea bermatuko dute.

2.2 ERRETERIAKO UDALAK BERE ESKUMENEN BAITAN HARTUTAKO ERABAKIAK

entidades locales, garantizando en todo caso el ejercicio efectivo del derecho de la ciudadanía a escoger la lengua oficial en la que se relacionan con los entes locales.

- En concreto el artículo 7.2 dice:
“Asimismo, se atribuye a los municipios, como propia, la competencia, con las facultades y funciones que de ella se derivan, para fomentar el conocimiento y dinamizar el uso del euskera en su ámbito territorial, ya sea mediante la prestación de actividades y servicios a estos fines o mediante la colaboración en la financiación de actividades de fomento y dinamización del euskera realizadas por otras personas o entidades.”
- La Ley 6/2003, de 22 de diciembre de 2003, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, así como el Decreto 123/2008, de 1 de julio de 2008, sobre derechos lingüísticos de las Personas Consumidoras y Usuarias reconocen a dichas personas el derecho a recibir la información relativa a bienes y servicios indistintamente en euskera o en castellano. En consecuencia, los organismos públicos garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en sus relaciones con las personas consumidoras y usuarias.

2.2 ACUERDOS ADOPTADOS POR EL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA EN EL EJERCICIO DE SUS COMPETENCIAS

⁴ Legeak garbi jasotzen du herritarren eskubidea dela hizkuntza hautua egitea eta administrazioek bermatu egin behar dutela eskubide hori, haiei dagokiela eskubide horiek bete daitezzen neurriak hartzea eta betetzen direla bermatzea



- Errenteriako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatu eta Sustatzeko Udal Ordenantza, 1997ko martxoaren 18an Udalak gehiengoz onartua
- 2011ko urriaren 26an Udalbatzak Euskararen Erabilera Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) "2011-2014 Plangintza Estrategikoa" onartu zuen
- 2013ko azaroaren 14an, 2012-2025 Plan Estrategikoa onartu zen Alkatetza Dekretuz. Bertan euskarak Errenterian bizi duen egoeraren AMIA (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak) diagnostikoa egin eta indargune eta aukerak eta ahulezia eta mehatxuak identifikatu ziren
- "Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak", 2013ko abenduaren 18an Alkatetza Dekretuz onartuak
- 2015eko urriaren 21ean Gobernu Batzordeak "Errenteriako Udalean Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu zuen
- Ordenanza Municipal para la Normalización y el Fomento del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de Errenteria, aprobada por mayoría en pleno de marzo de 1997
- "Plan General de Promoción del Uso del Euskera (PGPUE). Plan Estratégico 2011-2014." aprobado en el Pleno de 26 de octubre de 2011
- Plan Estratégico 2012-2025, aprobado el 14 de noviembre de 2013 por Decreto de Alcaldía. Se realizó un diagnóstico del uso de las lenguas e identificaron los puntos fuertes y oportunidades y los puntos débiles y amenazas, mediante la matriz DAFO
- "Criterios de uso de las lenguas oficiales", aprobados por Decreto de Alcaldía el 18 de diciembre de 2013
- Plan de Acción para la Promoción del Euskera en el Ayuntamiento de Errenteria, aprobado por la Comisión de Gobierno el 21 de octubre de 2015

Araudi horri jarraiki, Errenteriako Udalak euskararen erabilera normalizatzeko prozesua era planifikatuan gauzatu du, Eusko Jaurlaritzak antolatutako plangintzaldien arabera. Hauek dira orain arteko plangintzaldiak:

- I. Plangintzaldia (1990-1995): giza baliabideak arian-arian euskaraz ere jarduteko gaitzea izan zuen helburu nagusi. Lanpostu bakoitzari zegokion HE ezarri eta hori lortzeko langileei eskolak eskaini zitzaizkien
- II. Plangintzaldia (1997-2002): euskararen erabilera areagotzeko ardura eta erabilera normalizatzeko
- El Ayuntamiento ha desarrollado el proceso de normalización de manera planificada, en función de los periodos de planificación dictados por los decretos del Gobierno Vasco:
- I. Periodo (1990-1995): su objetivo principal fue la progresiva capacitación lingüística del personal en el desempeño de sus funciones. Se asignó el PL correspondiente a cada puesto y se escolarizó a las y los trabajadores que lo precisaron
- II. Periodo (1997-2002): se dictó la obligatoriedad de fomentar el uso del euskera y de aprobar planes de normalización en las administraciones



planak onartzeko beharra ezarri zien herri-administrazio guztiei

- III. Plangintzaldia (2003-2007): indarrean zegoen arautegia eta ordenantzak betez, Errenteriako Udaleko Udalbatzak 2003ko martxoaren 28an lehenengo erabilera plana onartu zuen, gehiengoz
- IV. Plangintzaldia (2008-2012): 2011ko urriaren 26an Udalbatzak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu zuen aho batez
- V. Plangintzaldia (2013-2017). Epe honetarako ezarritako erronka nagusia erabilera indartzea izan da, eta euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain lan- eta harremanetarako hizkuntza izan dadin neurriak hartuta

públicas

- III. Periodo (2003-2007). en cumplimiento de las leyes y ordenanzas vigentes, el 28 de marzo de 2003 el Pleno del Ayuntamiento aprobó por mayoría el primer plan de uso
- IV. Periodo (2008-2012): el 26 de octubre de 2011 el Pleno aprobó por mayoría el Plan de Normalización
- V. Periodo (2013-2017). El objetivo y reto principal de este periodo ha sido reforzar el uso del euskera, para que además de lengua de servicio lo sea también de trabajo y de relación

ERAGIN EPEA eta ERAGIN EREMUA

3

PERIODO DE VIGENCIA Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

2018an VI. Plangintzaldia hasi da eta 2022ko abenduan amaituko da. Helburua izan behar du orain arteko bideari jarraituz erronka berriak ezartzea, euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain lanerako eta harremanetarako hizkuntza ere izan dadin, era horretan euskara ohiko lan-hizkuntza bilakatu dadin.

1. ERAGIN EPEA

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 5. artikulua ezarri bezala, hizkuntza normalizaziorako plangintzaldiak bost urtekoak izaten dira, eta Dekretu beraren 19.1 atalak ezarritakoari jarraiki, Errenteriako Udalak plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean onartu edo egokitu behar du euskararen erabilera normalizatzeko plana.

Horrenbestez, Errenteriako Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren denbora-mugak

El VI Periodo de Planificación ha comenzado en 2018 y finalizará en diciembre de 2022. El objetivo deber ser el establecimiento de nuevos retos, dando continuidad al trabajo realizado hasta la fecha, al objeto de que el euskera además de lengua de servicio sea también lengua habitual de trabajo y relación.

1. PERIODO DE VIGENCIA

El artículo 5 del Decreto 86/1997 dicta que los periodos de planificación lingüística son de cinco años, y en cumplimiento del artículo 19.1, el Ayuntamiento de Errenteria debe aprobar o adecuar el plan de normalización del uso del euskera dentro del primer año del periodo de planificación en curso.

El periodo de vigencia del Plan de Normalización del Uso del Euskera es el



2018-2022 epealdia hartzen du, dagokion udal organoak onartzen duenetik 2022ko abenduaren 31ra artekoa hain zuzen ere.

2. ERAGIN EREMUA

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 4. artikulua jasotakoaren arabera, Errenteriako Udala eta Errenteria Musical Musika Patronatua hartzen ditu bere baitan.

Hizkuntza ofizialean erabilera normalizatzeko planeko parte-hartzaile izango dira funtzio komunikatiboak (idatziz nahiz ahoz) dituzten langile eta ordezkari politikoak, hizkuntzen erabilerarako helburuak betetzeko:

- Zerbitzu-hizkuntza: herritarrekin harremana dutenak
- Lan-hizkuntza: erakunde barruko zereginak betetzen dituztenak
- Harremanetarako hizkuntza: hainbat interes taldeekin lan egiten dutenak: herri administrazioak, erakundeak, elkarteak, hornitzaileak, finantza erakundeak, aliatuak,...

comprendido en el periodo 2018-2022, desde su aprobación por el órgano competente hasta diciembre de 2022.

2. ÁMBITO DE APLICACIÓN

En base al artículo 4 del Decreto 86/1997 el plan comprende al Ayuntamiento de Errenteria y el Patronato de Música Errenteria Musical.

Participarán en el plan de normalización el personal y los y las políticas que desempeñen funciones comunicativas (escritas y orales) al objeto de cumplir los objetivos lingüísticos correspondientes:

- Lengua de servicio: quienes se relacionan con la ciudadanía
- Lengua de trabajo: quienes desempeñan relaciones internas
- Lengua de relación: quienes trabajan con los diferentes grupos de interés: administraciones, instituciones, sociedades, empresas proveedoras y financieras y aliadas,...

DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA

4

ÍNDICE DE OBLIGADO CUMPLIMIENTO

86/1997ko Dekretuaren 11.2 artikulua erakundeak nahitaez bete beharreko derrigorrezko hizkuntza eskakizunen indizea ezartzen du, indarrean dagoen Erroldan eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datu soziolinguistikoak oinarri hartuta⁵.

El artículo 11.2 del Decreto 86/1997 establece el índice de obligado cumplimiento de preceptividad lingüística, tomando como base los datos socio-lingüísticos recogidos en el Censo y Estadística de Población en vigor.

⁵ DD kalkulatzeko formula: $\text{euskaldunak} + \text{ia euskaldunak} / 2$. 2016ko errolda datuak (EUSTAT). Errenteriako biztanleak (2 urtetik gora) guztira: 38.949. Euskaldunak: 16.714; ia euskaldunak: 7.749; erdaldunak 14.486



2016. urteko datu soziolinguistikoen arabera, VI. Plangintzaldian Erreterriako Udalak nahitaez bete beharreko indizea %52,8 da.

Según los datos socio-lingüísticos del Censo de 2016, el índice de obligado cumplimiento es de 52,8%.

METODOLOGIA

PLANAREN DISEINUA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

5

METODOLOGÍA

DISEÑO, SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL PLAN

VI. Plangintzaldian sail bakoitzarekin landuko ditugu Plan Estrategikoan jasotako helburuak, kudeaketa plana prestatzeari begira.

Bikaineko adierazle sistemaren arabera diseinatua dagoenez (Erreferentzia Marko Estandarra, EME), aukera emango digu adierazle sorta bera erabilita Udalak helburuen betetze mailan izandako bilakaeraren jarraipena egin eta ebaluatzeko.

2018-2022 plangintza prestatzeko, 2017ko irailean erakundeak aurkeztutako galdetegiaz gain, galdetegia egin diegu langileei.

Erakundearen hizkuntza egoera aztertzeo unibertsoa langile eta ordezkari politikoek osatzen dute. Langile kopuru handia dugunez, zaila da langile horien guztien datuak eskuratzea, eta, hortaz, lagina atera beharra dago. Lagungarri, *Siadecok* V. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa erabilitako metodologia erabili dugu. Hori horrela, erakunde bakoitzeko langile kopuruaren arabera egin beharreko inkesta kopurua jasotzen duen taulari jarraiki eta Erreterriako Udalak 300-350 langile bitarte dituela kontuan izanda, 169 langileri egin beharko genieke galdetegia.

Jarraitu dugun prozedura:

- Langileak ausaz aukeratu ditugu, Calc aplikazioko laginketa aukera erabiliz

En el VI. Periodo de Planificación trabajaremos los objetivos recogidos en el Plan Estratégico y realizaremos el plan de gestión correspondiente.

Debemos tener en cuenta que hemos confeccionado el Plan Estratégico siguiendo el modelo de Bikain (Marco Estándar de Referencia), por lo cual utilizaremos los mismos indicadores para el seguimiento y evaluación del grado de cumplimiento de los objetivos marcados.

Hemos confeccionado el plan 2018-2022 con los datos recabados en la evaluación presentada por el Ayuntamiento en el V. Periodo y en el cuestionario realizado al personal y representación política.

El universo para realizar el estudio de la situación lingüística del Ayuntamiento lo constituyen el personal y la representación política. Dado que el número de personas trabajadoras es elevado es complicado recabar información de todas ellas, por lo que hemos realizado un muestreo con ayuda de la metodología utilizado por *Siadeco* en la evaluación del V. Periodo. Erreterria tiene un número de personal comprendido en el tramo 300-350, por lo que le correspondería encuestar a 169 personas.

Procedimiento:

- Las personas encuestadas han sido seleccionadas al azar, utilizando el



- 200 galdetegi inguru bidali ditugu, posta elektronikoz zein eskura paperean emanda
- Gobernu taldeko ordezkariak ere galdetegia bete dute
- Guztira 153 galdetegiren erantzunak jaso ditugu (aurten 141+iazko 12 langileek emandakoak):
 - Euskaraz: 141
 - Gaztelaniaz 12
 - Emakumezkoak: 85
 - Gizonezkoak: 68

Plangintzaldi berriari begira, behin Plan estrategikoa prestatuta, euskara zehar-lerro gisa kudeatzea da helburua, ordezkari politikoen eta langileen inplikazio handiagoa lortzeko. Lana hizkuntza normalizaziorako teknikariak koordinatuko du eta behar duten laguntza teknikoak emango die ataletako arduradunei.

Ebaluaziorako Bikain sistema erabiliko dugu: VI. Plangintzaldirako Bikain kalitate ziurtagiriaren sistema inplementatu du Eusko Jaurlaritzak. HIZKETA aplikazioan helburuak sartu eta adierazle kuantitatiboak erabiliko dira bilakaera jasotzeko.

Plan Estrategikoan Errenteriako Udalak jasotako helburu estrategikoak kontuan hartuta, sail bakoitzaren egoeraren diagnostiko zehatzagoa egin ondoren kudeaketa planean jasoko ditugu sail bakoitzaren helburuak.

VI. Plangintzaldiaren amaieran, sail bakoitzak bere ebaluazio txostena prestatuko du, Udal Hizkuntza Politikarekin batera eta arduradun teknikoak arduradun politikoari horren berri

muestreo de Cal

- Hemos enviado 200 cuestionarios, en formato electrónico o papel
- Las y los representantes del Equipo de Gobierno han cumplimentado el cuestionario
- Hemos recabado información de 153 personas (este año 141+las que se realizaron el año pasado)
 - En euskera: 141
 - Castellano: 12
 - Mujeres: 85
 - Hombres: 68

En este periodo, una vez preparado el Plan Estratégico, el objetivo es gestionar transversalmente el uso del euskera, para de esa manera conseguir una mayor implicación laboral y política. El trabajo será coordinado por la técnica de normalización lingüística, quien ofrecerá ayuda técnica a las y los responsables de los departamentos.

Utilizaremos el marco de evaluación de Bikain, ya que ese es el sistema adoptado por el Gobierno Vasco para ese periodo y consideramos que es adecuado. Nos ofrece la posibilidad de introducir los objetivos en la aplicación HIZKETA. Utilizaremos datos cuantitativos para conocer la evolución.

Teniendo en cuenta los objetivos estratégicos generales, y tras realizar un diagnóstico más completo de cada departamento, recogeremos en el correspondiente plan de gestión los objetivos de cada uno de ellos.

Al finalizar el VI Periodo de Planificación cada departamento realizará su informe de evaluación junto con Política Lingüística Municipal y el o la responsable de



emango dio. Errenteriako Udal Hizkuntza Politika sailaren eginkizuna izango da sail guztietako ebaluazio txostenak abiapuntu hartuta Udalaren ebaluazio orokorra egitea.

departamento informará a su política o político. Política Lingüística Municipal realizará la evaluación general del Ayuntamiento tomando como base las evaluaciones particulares de cada departamento.

NORMALIZAZIOAN EGINDAKO
BIDEAREN EBALUAZIOA ETA VI.
PLANGINTZALDIRAKO DIAGNOSIA
UDALAREN ARGAZKI LINGUISTIKOA

6

EVALUACIÓN DEL PROCESO DE
NORMALIZACIÓN Y DIAGNÓSTICO
PARA EL VI. PERIODO
IMAGEN LINGÜÍSTICA DEL
AYUNTAMIENTO

1997an Ordenantza onartu zuenetik Errenteriako Udalak aurrerapauso handiak eman ditu euskararen erabilera normalizatzeko bidean, baina adierazleek erakusten dute batez ere azkeneko urteetan eman duela jauzi kualitatibo handiena. Plangintzaldiari hasiera emateko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak jaso ditugu.

Desde que en 1997 se aprobó la Ordenanza el Ayuntamiento de Errenteria ha avanzado a grandes pasos en materia de normalización lingüística, pero los indicadores nos muestran que sobre todo los últimos años se ha dado el mayor avance cualitativo. En este inicio del periodo hemos recabado datos cualitativos y cuantitativos.

Ebaluazioa

Evaluación

A) BIKAIN AZTERKETA: **2015eko
EBALUAZIOAREN EMAITZAK**

A) EVALUACIÓN BIKAIN: **RESULTADOS DE LA
EVALUACIÓN DE BIKAIN**

2015ean Bikain euskararen kalitate ziurtagiria eskuratzeko prozesuan sartu zen Udala, kanpoko talde aditu batek ebaluazioa egiteko helburuarekin. Bikainek euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketarako jarraibideak eta horien hedadura neurtu zituen, lau ardatzetan banatuta: komunikazio eta irudi korporatiboa, kanpo harremanak, barne harremanak eta hizkuntza kudeaketa⁶.

En 2015 el Ayuntamiento se presentó a la evaluación Bikain. Un grupo de personas expertas realizó la evaluación. Bikain mide la presencia, el uso y la gestión y el alcance de los criterios lingüísticos en cuatro ejes de actuación: comunicación e imagen corporativa, relaciones externas, relaciones internas y gestión lingüística.

Adierazleetan maila gorena aitortu zion Udalari ebaluazioa egitera etorri zen taldea: gehienez 1000 puntu eskuratu daitezke, eta Udala 800-849 puntuko tartean kokatu zuen.

El grupo de evaluación otorgó el nivel más alto en los indicadores: de los 1000 puntos que se pueden conseguir a través de Bikain, situaron al Ayuntamiento en el tramo 800-849.

6 2016an Bikaineko markoa aldatu egin zen, eta txosten honetan zehar ikusiko den bezala, egun Udalaren jarduna neurtzeko 2 ardatz hartu behar ditugu kontuan (zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza)



Talde ebaluatzaileak txostena aurkeztu zuen, alde batetik, Errenteriako Udalarari ordura arte egindako lana aitortzeko, eta bestetik, aurrera begirako jarraibide/orientabideak eskaintzeko.

Bikain prozesuan eskuratutako informazioa aztertu ondoren, aditu taldeak ondorioztatu zuen Errenteriako **3 indargunerik** garrantzitsuenak hauek direla:

1. Erabilera normalizatzeko plana eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak indarrean ditu Udalak. 1997an euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko udal ordenantza onartu zuenetik, hainbat izan dira planak eta planei egindako ebaluazioen ondoren ezarritako hobekuntzak eta inplementatutako neurriak.

2. Handia da lanpostuan eskatzen den hizkuntza gaitasuna eskuratuta duten langile kopurua, eta horri esker posible da zerbitzu eta jarduera guztiak euskaraz ere ematea.

3. Nabarmentzekoa da **ordezkari politiko eta tekniko** batzuek planarekiko duten atxikimendu **handia**; lidergoa hartu dute eta erreferente dira gainontzeko ordezkari politikoentzat eta langileentzat oro har.

Bestetik, hauek izan daitezke erakundeari **aurrera egiten gehien lagun diezaioketen palankak**, erakundearen beraren lehentasunak, errendimendua (eragin biderkatzailea) eta egingarritasuna aintzat hartuta:

1. Erakundea osatzen duten pertsonen euskara gaitasuna handia bada ere, **erabilera ezagutzaren azpitik dago**. Erabilera sustatze aldera talde ebaluatzaileak gomendatu zuen, alde batetik, gaitasuna lantzen jarraitzea eta, bestetik, hizkuntza portaeretan eragiteko motibazio eta sentsibilizazio saioak burutzea.

El grupo evaluador en su informe además del reconocimiento por el trabajo realizado hasta la fecha recogió una serie de criterios de orientación de cara a realizar mejoras en la gestión del uso de las lenguas.

En su informe concluyeron que **los 3 puntos más fuertes** del Ayuntamiento de Errenteria son:

1. Están en vigor el plan de normalización del uso de las lenguas y los criterios lingüísticos. Desde que en 1997 se aprobó la Ordenanza se han realizado mejoras y se han implementado medidas de normalización como consecuencia de las evaluaciones realizadas.

2. El número de personas trabajadoras que han acreditado el PL correspondiente a su puesto de trabajo es elevado, y ello ha conllevado la posibilidad de ofertar los servicios y actividades también en euskera.

3. Hay que reseñar **la adhesión de los y las representantes políticos y técnicas al plan**; han asumido el liderazgo y son referentes para el resto de la representación política y personal.

Por otro lado, las siguientes **“palancas” pueden ayudar al Ayuntamiento a avanzar** en la normalización, teniendo en cuenta las prioridades que establezca, el rendimiento (efecto multiplicador) y la eficiencia en el trabajo:

1. Aunque la capacidad lingüística de las personas que componen la institución es elevada, **el nivel de uso está por debajo del de conocimiento**. Recomendaron seguir trabajando las capacidades lingüísticas y realizar sesiones de motivación y sensibilización para cambiar hábitos lingüísticos.



2. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatuta daude, baina idatzizkoari dagokionez neurri handi batean itzulpena erabiliz egiten da. Euskararen erabilera normalizatzeko gako garrantzitsua da sortze hizkuntzan aurrerapausoak ematea. Horretan lagungarria litzateke langileek eskura dauden baliabideei (informatikoak, trebakuntza, estandarizatutako dokumentuak) etekin handiagoa ateratzea.

3. Kanpo harremanen arloa indartzeko, lagungarria litzateke erakundearen hizkuntza politikaren berri era esplizituan jakinaraztea hornitzaile, bezero, eta erakundeei. Halaber, gomendatu zuten dagoeneko ezarrita dauden protokoloetan (kontratazioetan, diru-laguntzetan eta espazio publiko zein udal materialak erabiltzeko baimen eskaeretan sartzen diren hizkuntza irizpideak) betetze mailaren jarraipena sistematizatzea.

2. Los derechos lingüísticos de la ciudadanía están garantizados, pero con respecto al uso escrito esa garantía viene dada por el uso del servicio de traducción. Un punto clave es la definición de la lengua de creación de los documentos, y para ello sería de ayuda poner a disposición del personal los recursos que permiten sacar un mayor provecho al trabajo: informáticos, sesiones de capacitación, estandarización de documentos.

3. En cuanto a las relaciones externas del Ayuntamiento, convendría que se diera a conocer de manera explícita la política lingüística de la entidad a empresas proveedoras, clientes e instituciones. Además, recomendaron realizar un seguimiento sistemático del nivel de cumplimiento de los protocolos recientemente adoptados: criterios lingüísticos de las contrataciones, subvenciones y solicitudes de utilización de espacios públicos y material municipal.

B) 2017an ERAKUNDEAK AURKEZTUTAKO EBALUAZIOA

ZERBITZU-HIZKUNTZA

1. HIZKUNTZA PAISAIA ETA ERAKUNDEAREN IRUDI LINGUISTIKOA

Hizkuntza paisaia. Euskara hutsezko erabilera badago ere, ele bitan jartzen da gehiena

- Eraikinetako errotulazio orokorra

Euskara hutsean	%20
Ele bitan	%80

- Erakundearen irudi korporatiboko elementuen hizkuntza egoera

Euskara hutsean	%70
Ele bitan	%30

- Paper edizioko argitalpenak

B) EVALUACIÓN PRESENTADA POR EL AYUNTAMIENTO EN 2017

LENGUA DE SERVICIO

1. PAISAJE LINGÜÍSTICO E IMAGEN DEL AYUNTAMIENTO

Paisaje lingüístico. Se da un mayor uso bilingüe de los elementos, pero también se usa el euskera en solitario.

- Rotulación general de los edificios

- Elementos de la imagen corporativa

- Publicaciones en soporte papel



Ele bitan

%100

- Ehunekoak kalkulatzeko aurkeztutako bost argitalpenak

- Errenteria udal aldizkaria
- Kultur agenda
- Atlantikaldia laburpena eta programa
- Ongi etorri gida
- Kultura buletin elektronikoa

- Publicaciones presentadas para calcular los tantos por ciento

- Revista municipal Errenteria
- Agenda cultural
- Atlantikaldia: resumen y programa
- Guía de bienvenida
- Boletín electrónico de Cultura

- Hedabideen bitartez zabalduko iragarki eta publizitatea

- Anuncios y publicidad en los medios

Euskara hutsean

%70

Ele bitan

%30

Ehunekoak kalkulatzeko hedabideak:

Medios utilizados para el cálculo:

- Herri Bizia
- Diario Vasco
- Hitza
- Noticias de Gipuzkoa
- Euskal Irratia

- Ingurune digitala

- Entorno digital

Ele bitan

%100

2 HERRITARREKIKO HARREMANAK ETA
ERAKUNDEAK ERABILITAKO ZERBITZU-
HIZKUNTZA

2. RELACIONES CON LA CIUDADANÍA E IDIOMA
DE RELACIÓN UTILIZADO POR LA ENTIDAD

Errenteriako Udalak ez du azken 12 hilabeteetan herritarrek erakundeari idatziz egindako eskaeretan erabilitako hizkuntza sistematikoki jasotzeko prozedurarik, ezta herritarrek erakundean euskaraz aurkeztutako idatzizko eskaerei erantzuteko erabilitako hizkuntza jasotzeko ere.

El Ayuntamiento no tiene un procedimiento sistemático para recabar información sobre el idioma utilizado por la ciudadanía en las solicitudes realizadas en los últimos 12 meses. Tampoco para hacer el seguimiento del idioma utilizado para responder a las misma.

- Herritarrek erakundeari idatziz egindako

- Idioma utilizado por la ciudadanía en las



eskaeretan erabilitako hizkuntza

Gaztelania hutsean	%75
Euskara hutsean	%12
Ele bitan	%13

solicitudes

- Herritarrek erakundearen euskaraz aurkeztutako idatzizko eskaerei erantzuteko erabilitako hizkuntza

- Idioma utilizado para responder a las solicitudes en euskera de la ciudadanía

Euskara hutsean	%2
Ele bitan	%98

LAN-HIZKUNTZA

3 BARNE HARREMANAK ETA ERAKUNDEAREN LAN-HIZKUNTZA

- Erakundeak ez du prozedura administratiboak kudeatzeko erabilitako hizkuntza sistematikoki jasotzen (*langileei ere galdetu zaie galdetegian eta haiek emandako iritzi subjektibotik eskuratutako datua jaso dugu*)

- Baliabide informatikoak:

- Baliabide informatikoak erabiltzen dituzten lanpostuen kopurua: 308

LENGUA DE TRABAJO

3. RELACIONES INTERNAS Y LENGUA DE TRABAJO DE LA INSTITUCIÓN

- El Ayuntamiento no recoge de forma sistemática el idioma utilizado en la gestión de los procedimientos administrativos (*el personal contestó esta pregunta y se ha recogido como dato subjetivo*)

- Recursos informáticos

- Puestos de trabajos que utilizan ordenador: 308

• Euskaraz	• %14
• Gaztelaniaz	• %86

4 KANPO HARREMANAK

A) Erakundearen eta EAEko beste herri erakundearen arteko idatzizko harremanak

- Erakundeak badu hizkuntza irizpidea EAEko beste herri erakundeetara bidali beharreko dokumentuen hizkuntzari buruz, baina ez dugu datu horren kudeaketa sistematikoki egiten.

4 RELACIONES EXTERNAS

A) Relaciones escritas entre el Ayuntamiento y el resto de administraciones públicas de la CAV

- Hay un criterio lingüístico para las relaciones entre el Ayuntamiento y el resto de administraciones públicas de la CAV, pero no lo gestionamos de forma sistemática.



Irteera datuetatik lortutako emaitza hau da:

Datos del registro de salida:

Euskara hutsean	%10
Ele bitan	%90

(langileei ere galdetu zaie galdetegian eta haiek emandako iritzi subjektibotik eskuratutako datua jaso dugu)

(el personal contestó esta pregunta y se ha recogido como dato subjetivo)

- Enpresa hornitzaileei zuzendutako komunikazio idatziak

- Comunicaciones escritas a empresas proveedoras

Ele bitan	%100
-----------	------

(langileei ere galdetu zaie galdetegian eta haiek emandako iritzi subjektibotik eskuratutako datua jaso dugu)

(el personal contestó esta pregunta y se ha recogido como dato subjetivo)

- Enpresa hornitzaileek bidalitako dokumentazioa zein hizkuntzatan jasotzen den kalkulatzeko adierazlerik ez dugu *(datua langileei galdetu zaie galdetegian eta haiek emandako iritzi subjektibotik eskuratutako datua jaso dugu)*

- No disponemos de un indicador que recoja el idioma de la documentación enviada por las empresas proveedoras *(el personal contestó esta pregunta y se ha recogido como dato subjetivo)*

5 HIZKUNTZA KUDEAKETA

5 GESTIÓN DE LAS LENGUAS

- Errenteriako Udalarri dagokion derrigortasun-indizea: %52,08

- Índice de preceptividad: 52,08%

- Lanpostuen hizkuntza eskakizunak:

	HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK / KOPURUA
1 HE	30
2 HE	151
3 HE	136
4 HE	37

- Dagokien hizkuntza eskakizuna edo altuagoa egiaztatua duten lanpostuak:

- Puestos que han acreditado el PL correspondiente o el superior

- 1 HE eskakizunekoetan egiaztatua: %50
- 2 HE eskakizunekoetan egiaztatua: %72
- 3 HE eskakizunekoetan egiaztatua: %72

- Acreditado el PL1: 50%
- Acreditado el PL2: 72%
- Acreditado el PL3: %72



- 4 HE eskakizunekoetan egiaztatua: %81
- Dagokiena edo altuagoa egiaztatutakoak: %71
- DD dutenetatik lanpostuaren HE betetzen dute: %66
- DD igarota eduki eta hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe dauden lanpostuak: %14

- Erakundeko ordezkari politikoen hizkuntza gaitasuna (21):

- Euskaraz hitz egiteko gai dira: 14
- Euskaraz ulertzeko gai dira: 14

- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK:

- Erakundeak baditu hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak
- Maila ertainean betetzen dira

C) DATU KUALITATIBOAK (LANGILE ETA ORDEZKARI POLITIKOEN IRITZIA) EUSKARAREN ERABILERA UDALAN DUEN BILAKAERARI BURUZ DUTEN IRITZIA
ERABILERAREN BILAKAERA

Oro har balorazio positiboa edo oso positiboa egiten dute langile zein ordezkari politikoei, euskararen erabilera bilakaera ona izan duela uste dute. Gehienetan iritzi azken urteotan areagotu egin da erabilera, ahoz zein idatziz. Aurrerapausoak eman direla eta lan handia egiten ari dela nabarmendu dute askok:

- *Erabilera: euskararen erabilera handitu da, bai lanean bai harremanetan. Bultzatu egiten da euskara erabiltzea (Beti euskaraz egin dezaket; harremanetan erabiltzen den hizkuntza printzipala da; gero eta gehiago entzuten da euskara sailetan)*
- *Euskaraz lan egiteko ahalegina eta baliabideak jarri dira. Euskara ikasteko*

- Acreditado el PL4: %81
- Acreditado el PL o superior: %71
- De los que tienen fecha de preceptividad: %66
- Puestos con fecha de preceptividad vencida y no han acreditado: 14%

- Capacidad lingüística de las y los políticos (21):

- Capacidad oral: 14
- Comprensión: 14

- CRITERIOS LINGÜÍSTICOS:

- La entidad tiene los criterios lingüísticos aprobados
- Se cumplen en un nivel medio

C) DATOS CUALITATIVOS (OPINIÓN DEL PERSONAL Y LOS Y LAS POLÍTICAS) REFERENTES A LA EVOLUCIÓN DEL USO EN EL AYUNTAMIENTO
EVOLUCIÓN DEL USO

En general realizan una valoración positiva o muy positiva. En opinión de la mayoría durante los últimos años se ha acentuado el uso, tanto de manera oral como escrita. Un gran número remarca que se ha avanzado y se está trabajando bien:

- *Uso: el uso ha aumentado, en el trabajo y las relaciones (siempre puedo hablar en euskera; es la lengua principal de relación; se oye cada vez más en los departamentos)*
